

# Bizkaiko Campuseko jantokietako hondakinen murrizketaren ebaluazioa eta konpostajearen bideragarritasuna

## Viabilidad del compostaje y evaluación de la reducción de residuos en los comedores del Campus de Bizkaia

GRALaren izenburua

Título TFG

<b>Egilea</b> <b>Autora o Autor</b>	Julen Henry Aranburu	
<b>Campus Bizia</b> <b>Lab proiektuak</b> <b>Proyecto</b> <b>Campus Bizia</b> <b>Lab</b>	<b>Bizkaiko Campuseko hondakinak murrizteko estrategiak</b> <b>Estrategias para reducir los residuos del Campus de Bizkaia</b>	
<b>Zuzendaria</b> <b>Directora o Director</b>	Ibone Ametzaga Arregi; María Merino Maestre	
<b>Ikastegia</b> <b>Centro</b>	Zientzia eta Teknologia Fakultatea Facultad de Ciencia y Tecnología	
<b>Gradua</b> <b>Grado</b>	Biologiako Gradua. Grado en Biología	
<b>Laburpena</b> <b>Resumen</b>	<p>Gaur egun jakina da gizakiok gure planeta osoa izugarri kutsatzen dugula, eta egoera hobetu beharrean okerrera doala. Hala ere pixkanaka gizartea arazoak ohartzen eta informatzen ari da, eta asko ahal den neurrian arazoa konpontzen saiatzen dira, adibidez, kontsumo alternatiboak abian jartzen, agroekologian murgilduz edo birziklapenean aktiboki parte hartzen. Elikagaien industria kutsadura honen eragile nagusienetakoa da. Lurrean jende asko bizi da, geroz eta gehiago, eta guztiok elikatzeko janari ekoizpena oso handia izan behar da. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen arabera, gizakientzako ekoizten den janarietatik herena galtzen dela, eta hondakinen kudeaketak ere aztarna ekologiko handia dauka (FAO, 2011). Hondakin kopurua murriztu ezker, aztarna ekologikoa txikiagotzen da, kostu ekonomikoekin batera.</p> <p>Hondakinen murrizketan parte hartzeko, proiektu pilotu bat aurrera eraman da Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko Campusean (Leioa Erandio eremuan). Bi helburu nagusi ditu: unibertsitateko jantokien bezeroek sortutako hondakinak aztertzea eta murriztea eta janaria prestatzerakoan sortutako landare-hondakinak berrerabiltzea konposta sortzeko. Jantokian</p>	

sortutako hondakinetatik janaria, ogia eta ontziak aztertu dira, hauen hondakinen murriztapenerako proposamenak daudelarik. Haien artean daude soberako janaria etxera eramateko ontzi hermetikoak eta konpostagarriak, postrea zein ogiaren tamainaren murrizpena, olio eta ozpin botilak jartzea plastikozko dosi-bakarreko ontzien ordean eta plastikoaren birziklapena bermatzea. Landare-hondakinak erabiltzeko konpostagailuak jarriko dira, prozesu natural baten ondorioz ongarria lortzeko. Gainera, ongarria campuseko baratz eta lorategiak zaintzeko erabiliko da.